

Azterketak



Finantza erakundeak, behin-behinekotasuna,
administrazioen aurrekontu emaitza
eta lan osasun eta segurtasuna

Eredu neoliberalaren aurka

ELAko Azterketa Bulegoa

Non zer

SARRERA	3
---------------	---

FINANTZA-ERAKUNDEEN NEGOZIOA: DIRU PUBLIKOA ETA KREDITU GARESTIAGOAK

0. Sarrera	4
1. Esku-hartze publikoa eta bankaren mozkinak	4
2. Finantza-erakundeen politika: kreditua zailtzea	6
3. Finantza-erakundeek aplikatutako interes-tasak	10
4. Ondorioak	14

BEHIN-BEHINEKO LANA, ENPRESARIEN ESTRATEGIA BAI HAZKUNDE-GARAIAN, BAI KRISIALDIAN

0. Sarrera	17
1. Behin-behineko kontratazioaren ondorioak	18
2. Behin-behinekotasuna, europakoa baino handiagoa	21
3. Ukituen izan diren gizarte-taldeak	22
4. Ondorioak	23

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN 2008KO AURREKONTU-EMAITZA

1. 2008an, zerga-bilketa txikiagoaren ondoriozko defizita	24
2. Diru-bilketaren gutxipena ez da batere komenigarria krisi-garaian	24
3. 1998az gero pilatutako superabita 5.724 milioi eurokoa da	25
4. Superabit orokorra 1998az gero EAEn	26
5. Europar batasunean baino defizit txikiagoa 2008an	27

LAN OSASUN ETA SEGURTASUN ARLOAN DIAGNOSI ETA BALORAZIOA

1. Egoeraren gaineko diagnosis	29
2. Osalaren jardunari buruzko balorazioa	31
3. Ondorioak	34

Txosten honetan izaera ezberdineko 4 agiri bildu ditugu. Lehengoan finantza-sektorea aztertzen da, eta jasotzen ari den laguntza publikoak zehazten dira, horren truk ezertxo ere eskatu gabe. Finantza erakundeak, bere aldetik, ez direla laguntza hau gizartera helarazten ari ikusiko dugu; zehazki, ez dutela krediturik ematen, eta egiten dutenean, izugarrizko mozkinak ziurtatuz egiten dute, familiak larriki estutuz.

Bigarren atalean behin-behinekotasuna aztertzen dugu, dituen ondorioak azalduz, eta gehien eragiten dien kolektiboak zehaztuz. Atal honek agerian uzten du laneko behin-behinekotasunak prekaritate soziala dakarrela, eta baita behin-behinekotasuna enpresarien estrategiaren parte dela ere, ahalik eta mozkin gehien lortzeko helburuarekin.

Hirugarren atalean 2008. urtean Euskal Autonomi Erkidegoan Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiek izandako aurrekontu emaitza aztertuko dugu, eta aurreko ekitaldietan gertaturikoa ez bezala, ekitaldia defizitarekin itxi dela nabarmenduko da. Hala ere, defizita ez da salbuespena europar mailan. Gainera, defizit hau ez da gastua hazi delako eman, zerga bilketa murriztu delako baizik (zerga iruzurraren hazkunde eta Sozietate gaineko Zerga jaitsieraren ondorioz).

Laugarren atalean, ELAko Lan Osasun eta Segurtasun Areak buruturiko txosten bat sartu dugu. Bertan, Euskal Autonomi Erkidegoko ezbehar-kopuru eta gaixotasun profesionalen egoerari buruzko diagnostia egiten da, eta baita Osalanen jarduerari buruzko balorazioa ere.

Eduki ezberdinekoak izan arren, txostenaren lau atalek nabarmentzen dute gure gizartearen eredu neoliberal. Agerian geratzen da, honela, nor mesedetzen duen sistemak (kapitala), eta nor kalteetzen duen (langileria, eta gehien bat, enplegu prekarioak dituztenak eta kolektiborik ahulenak).

Mobilizazio eta borrokarekin bakarrik lortu dezakegu eredu justuago baterantz aldaketa, baina horretarako, beharrezkoak ditugu informazioa, argudioak, eta sentsibilizazioa. Hauxe da txosten honen helburua, eredu justuago baterantz kontzientziazioan eta borrokan lagundu, eredu aldaketa lortu dezagun.

FINANTZA-ERAKUNDEEN NEGOZIOA: DIRU PUBLIKOA ETA KREDITU GARESTIAGOAK

0. SARRERA

Oraingo krisiaren zuzeneko arrazoietakoa bat finantza-erakundeek sortu duten espekulazio-dinamika izan da, gobernuek kapital-mugimenduak liberalizatzeko hartutako erabakiek horretarako bidea errazturik.

Egoera aldarazteko neurririk ez da hartu, ordea. Botere publikoek finantza-erakunde horien eskura diru-kopuru eskergak (zergak ordaintzen ditugunon poltsikoetatik ateratakoak) ipini besterik ez dute egin, dirua eman baino lehen bankaren jardunbideak aldatzeko baldintza ere jarri gabe, horrela, beste barik, egoera aldatu ahal-ko bailitza.

Dokumentu honetan, finantza-erakundeak aplikatzen ari diren politikak aztertuko ditugu, eta gobernuak, politika horien aurrean, zer egiten ari diren ere ikusiko dugu.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOA ETA BANKAREN MOZKINAK

Lehenengo atal honetan, Espainiako gobernuak Bankaren eta Kutxen eskura jartzea erabaki duen diruari buruz arituko gara. Ikusiko dugunez, esku-hartze hori erakundeon emaitzen kontu ofizialek mozkin oparoak agertzen dituztelarik egin da.

1.1. Finantza-erakundeen esku jarritako dirua

Espainiako Gobernuak 30.000 milioi euroko gehienezko zenbatekoa jaso du finantza-erakundeentzako "finantza-aktiboak erosteko fondoa" eratzeko, eta hainbat enkantetan aktiboak erosteko erabiltzen ari da gobernuak diru hori. Paperean, aktiboen kalitate onekoak izan behar dutela idatzi arren, gai horren gaineko informazioaren fidagarritasuna oso eztabaidagarria da, eta, beraz, aktibo horien bene-

tako balioa, dudazkoa. Fondo horren zenbatekoa Barne Produktu Gordinaren (BPGd) %2,7 bestekoa da.

Horrez gain, bestalde, Espainiako Gobernuak 200.000 milioi euroko gehienezkoa, hots, BPGd-aren %18,3, jarri du, abaletarako, finantza-erakundeen eskueran.

Hortaz, Espainiako Gobernuak finantza-sistemara 230.000 milioi euro zuzentzea erabaki du. Neurritz kanpoko diru-kopuruak, beneran. Bi adibide aipatuko ditugu: Estatuak pentsioetan gastatzen duen zenbatekoa ez da 100.000 milioi eurora (BPGd-aren %9ra) iristen, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren 2009rako aurrekontuen batura 14.000 milioi euro baino gutxiagokoa da.

Bankak, Kutxek, Espainiako Bankuak eta Espainiako Gobernuak finantza-sistema osasuntsu dagoela diote. Baieztapen hori ez dator bat banku-sistema salbatzeko erabiltzen ari den dirutza publiko eskergarekin.

Finantza-erakundeen egikera aldatzea behin ere ez da aipatu, ordea, nahiz eta oraingo egoerara horrexek eraman gaituen. Era horretan, aurrerantzean negozioak berriro txarto ateratzen bazaizkie, gizarte osoarena den dirutza hori guztia izango dute, eurena salbatzeko.

Finantza-erakundeen eskura jarritako fondo publikoak. Espainiako estatura

	Milioi €	BPGd % ¹
FONDOA	30.000	2,7
ABALAK	200.000	18,3

Iturria: Espainiako Gobernuak

Bestalde, harritzekoa da zeinen erraz eskaini dizkieten gobernuek diru-kopuru erraldoi horiek nori eta euren espekulazio-politikaz krisia eragin dutenei zuloak estaltzen laguntzeko. Mozkinak pribatizatu, eta galerak sozializatu egiten dira.

Aldi berean, aitzitik, gizarte-gastuari dagokionez, erabateko zekenkeriaz jokatzeko dute, bai hitzez, bai ekintzetan (gastu publikoaren murrizketa, pentsioen beharpenak,...). Jokabideok argi erakusten dute instituzioen esku-hartze publikoaren izaera politiko antisoziala.

¹ Finantza-erakundeen eskura jarritako diru-kopuruak 2008ko ekitaldiko BPGd-arekin zatitu dira

1.2. Finantza-erakundeen mozkinak

2008ko ekitaldian, Espainiako Estatuko finantza-erakundeek 23.936 milioi euro irabazi zituzten. Urtealdi horretan 2007an baino %21,7 gutxiago irabazi bazuten ere, emaitza ikusgarriak dira, orduan ere mozkinak lortzen ?mardulak, gainera? jarraitzen zutelako, galerak izan ordez. Zehazki, 2008an finantza-erakundeek lortutako irabaziak BPGd-aren %2,2 bestekoak izan dira.

Aurreko urtealdi guztietan, finantza-erakundeen irabaziak handiak izan dira, eta urtearteko gehikuntza biziak izan dituzte. 2005ean, 19.268 milioi euro irabazi zituzten. 2005ean, %44,2 hazi ziren mozkinak; 2006an, %33,6, eta 2007an, %19,3. 2008ko gutxipena gorabehera, finantza-erakundeek iaz lortu zituzten mozkinak 2004koak baino %79 handiagoak izan ziren.

Finantza-erakundeen irabaziak. Espainiako estatua, 2005-2008

EKITALDIA	Milioi €	Aldakuntza %	BPGd %
2004	13.362		1,6
2005	19.268	44,2	2,1
2006	25.717	33,6	2,6
2007	30.640	19,3	2,9
2008	23.936	-21,7	2,2
2004-2008 ald.	112.923	79	

Iturria: Egonkortasun Finantzarioari buruzko Txostena. 2009ko maiatza. Espainiako Bankua.

Nabarmendu behar da finantza-erakundeen eskueran jarri den fondoaren zenbatekoa erakundeok 2008an eskuratu zituzten mozkinen antzekoa dela. Gobernuak, fondo horrekin, mozkin-marjina itzel horiek sortzen segitzea nahi duela esan liteke.

2. FINANTZA-ERAKUNDEEN POLITIKA: KREDITUA ZAILTzea

Logikari helduz, pentsa genezake instituzio publikoetatik hain diru-kopuru oparoak jaso dituzten finantza-erakundeek jendearen eta enpresen beharrak asetzeko eta, kredituetara diru-baliabideak bideratuz, ekonomia suspertzen laguntzeko erabiliko dutela dirua. Esku-hartze publikoa horrexetarako egin dela esan zaigu behintzat. Baina errealitatea oso bestelakoa da.

Atal honetan, finantza-erakundeak aplikatzen ari diren politika aztertuko dugu, kreditua eskuratzeko erraztasun handiagoa eman ala traba gehiago jartzen ari diren, eta kredituen marjinak nolakoak diren jakiteko. Bi joera horien berri izateko, Euroaren Eremuari zein Espainiako Estatuari erreparatuko diegu.

2.1. Krediturako irizpide zailagoa

Hurrengo taulan, Europako Banku Zentralak (EBZ) Euro-Guneko 118 finantza-erakunde oinarritzat harturik egin duen azterlanaren emaitzak azaltzen dira. Horien bidez, kreditua emateko jartzen diren baldintzak 2009ko lehenengo 3 hilabeteetan zorroztu (hau da, kreditu-maila murriztu), bere horretan utzi, ala urritu egin diren (kreditua lortzea erraztu egin den) jakin daiteke. EBZren azterlan horretatik honako ondorio hauek atera ditzakegu:

- 2009ko lehenengo hiruhilekoan, finantza-erakundeen %43,6k murriztu du sozietateei ematen zaizkien kreditueta-rako irispidea, %56,4k ordura arteko baldintza berberei eutsi dielarik. Ezein erakundek ez die erraztu kredituen lorpena enpresei.
- Finantza-erakundeen %28,7k murriztu du herritarrentzako hipoteka-maileguetarako irispidea; %71,3k, aldiz, bere horretan utzi du. Erakunde batek ere ez du hipoteka-maileguen irisgarritasuna areagotu.
- Finantza-erakundeen %30ek kontsumorako kredituen lorpidea murriztu du; %66k lehen bezala utzi du, eta bakarrik %4k hobetu du.

Banku-maileguei buruzko inkesta, (erakundeen %). Euroaren eremua, 2009ko apirila

	Irizpidea murriztu	Berdin utzi	Irizpidea erraztu
Sozietateentzako kr.	43,6	56,4	0
Hipoteka-maileguak	28,7	71,3	0
Kontsumorako kredituak	30	66	4

Iturria: The Euro Area Bank Lending Survey, 2009ko apirila. EBZ

Europako Banku Zentralaren txostenak erakusten duenez, 2007an eta 2008an zehar bezala, 2009ko lehenengo hilabeteetan ere, kreditua lortzeko baldintzak gero eta gogorragoak izan dira.

Espainiako Bankuak Europako txostenean ere azaltzen diren Espainiako Estatuko 10 erakundeek aztertu ditu. Emaitzak Euro-Gunearen antzekoak dira. 2009ko lehenengo hiru hilabeteetan:

- Espainiako Estatuko finantza-erakundeen %40k murriztu ditu enpresei ematen zaizkien kredituen lorpidea, %60k lehenengo baldintzei eutsi dielarik. Batek ere ez du sozietate-entzako kredituetarako irispidea erraztu.
- Finantza-erakundeen %30ek zaildu du hipoteka-maileguak lortzeko bidea; %70ek, berriz, lehen bezala utzi du. Ezein erakundek ez du hipoteka-maileguetarako irispidea erraztu.
- Erakundeen %40k murriztu du kontsumorako kredituen irisgarritasuna, %60k bere horretan utzi duelarik. Erakunde batek ere ez ditu mota horretako kredituak lortzeko baldintzak malgutu.

**Banku-maileguei buruzko inkesta, (erakundeen %).
Espainiako estatua, 2009ko apirila**

	Irizpidea murriztu	Berdin utzi	Irizpidea erraztu
Sozietateentzako kr.	40	60	0
Hipoteka-maileguak	30	70	0
Kontsumorako kredituak	40	60	0

*Iturria: Espainiako Banku Maileguei buruzko Inkesta, 2009ko apirila.
Espainiako Bankua*

Datuok agertzen dutenez, 2009ko lehenengo hilabeteetan, enprezentzako kredituak, hipoteka-maileguak zein kontsumorako kredituak eskuratzeko bidea nabarmenki murrizten jarraitu dute, bai Euro-Guneko finantza-erakundeek, bai Espainiako Estatukoek.

Espainiako Bankuaren txostenak, halaber, kredituak onartzeko irizpideek denboraldi luzeago batean? 2006tik 2008ra? izan duten bilakaera aztertzeo aukera ere ematen digu.

Bai Estatuan, bai Europan, 2009ko lehenengo hiruhilekoan, kredituak onartzeko irizpideak gogortzen segitu dute erakundeek, eta berdin antzera, bi eremuetan. Baina lehenagoko urtealdietan (2006an, 2007an eta 2008an) Espainiako Estatuko erakundeek Euro-Gunekoek baino askoz zailago jarri izan dute kreditua lortzeko bidea. Hau da, 2006an, 2007an eta 2008an zehar, Espainiako Estatuko kreditu-erakundeak Europakoak baino are zorrotzagoak izan dira, kredituak ematerakoan.

Zorroztasun handiago hori, gainera, are nabariagoa izan da familiei kredituetan, batez ere etxebizitza erostekoetan; baina enpresentzako kredituetan ere jazo da.

2.2. Kreditu-baldintza latzagoak

Maileguak emateko orduan iturria ixten ibiltzeaz gain, finantza-erakundeek baldintza txarragoak ezarri dizkiete emandako kredituei. Euro-Guneko datuek hauxe diote 2009ko lehenengo hiruhilekoan kredituei ezarri zaizkien baldintzei buruz:

- Enpresei eman zaizkien kredituetan aplikatutako marjinak Euro-Guneko finantza-erakundeen %62,4k handitu ditu, 37,6k berdin utzi dituelarik. Erakunde batek ere ez ditu marjina horiek leundu.
- Hipoteka-maileguen interesetan aplikatutako marjina erakundeen %47,2k gehitu du; beste %47,2k bere horretan utzi du, eta %5,6k gutxitu du, aurreko hiruhilekoko marjinarekiko.
- Kontsumorako kredituei aplikatutako marjina finantza-erakundeen %44,4k handitu du, eta %55,6k utzi du berdin. Batek ere ez du horrelako kredituei aplikatutako marjina urritu.

Banku-maileguei buruzko inkesta (erakundeen %). Euroaren eremua, 2009ko apirila

	Marjina handiagoa	Marjina berdina	Marjina txikiagoa
Sozietateentzako kr.	62,4	37,6	0
Hipoteka-maileguak	47,2	47,2	5,6
Kontsumorako kredituak	44,4	5,6	0

Iturria: The Euro Area Bank Lending Survey, 2009ko apirila. EBZ

Espainiako Bankuaren azterlanak antzeko emaitzak agertzen ditu Espainiako Estatuari buruz:

- Enpresei emandako kredituetako marjinak Espainiako Estatuako finantza-erakundeen %50ek handitu ditu, beste %50ak bere horretan utzi dituelarik. Erakunde batek ere ez du aplikatutako marjina leundu.
- Hipoteka-maileguei ezarritako marjina erakundeen %40k gogortu du, eta %60k utzi du lehenago bezala. Marjina hori apaldu duen erakunderik ere ez da egon.

- Estatuko finantza-erakundeen %40k ezarri die marjina handiagoa kontsumorako kredituei, marjina bere horretan utzi dutenak %60 izan direlarik. Ezein erakundek ere ez du leundu kontsumorako kredituetako marjina.

**Banku-maileguei buruzko inkesta (erakundeen %).
Espainiako estatua, 2009ko apirila**

	Marjina handiagoa	Marjina berdina	Marjina txikiagoa
Sozietateentzako kr.	50	50	0
Hipoteka-maileguak	40	60	0
Kontsumorako kredituak	40	60	0

*Iturria: Espainiako Banku Maileguei buruzko Inkesta, 2009ko apirila.
Espainiako Bankua.*

Ondorioa argia da. Enpresei emandako kredituei, hipoteka-maileguei zein kontsumorako kredituei aurreko hiruhilekoan baino marjina handiagoa ezarri zaie, bai Euro-Gunean, bai Espainiako Estatuan.

Orain, beraz, kreditua lortzea duela hiru hilabete baino zailagoa izateaz gainera, lortutako kredituen baldintzak are txarragoak dira.

3. FINANTZA-ERAKUNDEEK APLIKATUTAKO INTERES-TASAK

Atal honetan EBZk interes-tasen inguruan aplikatzen duen politika aztertuko dugu, eta finantza-erakundeak interes-tasekin egiten duten erabilera.

3.1. Europako Banku Zentralaren interes-tasak

Gaur egungo moteltze ekonomikoaren aurrean, interes-tasak txikiagotzea izan da EBZren moneta-politika, inbertsioa sustatzeko asmoarekin, eta honekin, ekonomia.

Ondorengo grafikoan, 2008ko azken hilabeteetan interes-tasa ofizialen etengabeko txikiagotzea eman dela ikusten da, honela, 2008ko iraileko %4,3tik, 2009ko maiatzean %1era aldatu da interes-tasa². Beraz, sekula eman diren EBZko interes-tasarik txikienen aurrean gaude.


Honetaz gain, interes-tasa altuagoetara ohituak egon bagara ere, 2006ko hasieran interes-tasak %2ko inguruan kokatzen zirela gogoratu behar dugu. Hau da, interes-tasak aurreko hilabeteekin aldera-

² 2009ko maiatzaren 7ko informazioa

tuz gero baxu daude, baina egia da ere interes-tasen handitze altua eman izan zela.

Euriborraren bilakaera antzekoa izan da, moneta-interes ofizialeren gaintek egonaz beti. Bi hauen arteko aldea nabarmena izan da 2008ko bigarren seihilekoan batez ere.

Interes-tasen eta euriborraren bilakaera (%).
Europar batasuna, 2007ko apirila – 2009ko maiatza




Iturria: EBZ

3.2. Finantza-entitateak aplikatutako interes-tasak

Atal honetan Euro-Guneko finantza-entitateek kontsumorako mai-leguei eta hipotekei ezarritako interes-tasa ikertuko dugu, baita hauen bilakaera ere. EBZk ezarritako jaitsierak ez dira ari nabaritzen neurri berean finantza-entitateek ezartzen dituzten jaitsieretan.

2009ko martxoan, Euro-Guneko finantza-erakundeek aplikatutako interes tipo orokorra %8,1ekoa izan zen, interes-tipo ofiziala baino bost bider handiagoa, martxoan %1,5ekoa izan zena. Espainiar Estatuko entitateek aplikatutako tipoa oraindik handiagoa izan zen, %10,3koa, ofiziala baino ia 7 aldiz handiagoa. Izatez, grafikoan ikus daitezke Europako leku ezberdinen arteko aldeak. Interes-tipo txikienak Finlandia (%5), Irlanda (%5,1) edo Austria (%6,6) bezalako herrialdeetan aurki ditzakegu.


Finantza entitateak kontsumorako maileguei aplikatutako interes tipoa (%). Europa, 2009ko martxo



Iturria: EBZ - EB

Hipotekadun maileguetan ondorioa antzekoa da. Euriborra 2009ko martxoan %1,9koa izan den bitartean, Europako finantza-erakundeek aplikatutako interes-tipoa askoz handiagoa izan da. Honela, Estatuko entitateek ezarritako tipoa %3,9koa izan zen, Euriborraren bikoitza. Bestalde, Euro-Gunean hipotekadun maileguei aplikatutako batez besteko interes tipoa %4,4koa izan zen.


Finantza entitateak hipotekadun maileguei aplikatutako interes tipoak (%). Europa, 2009ko martxoa



Iturria: EBZ - EB

Interesagarria suertatzen da azken urtean benetan aplikatu diren interes-tipoen bilakaera aztertzea. Euro-Gunean, kontsumorako maileguetan, batez besteko interes-tipoak %0,5 besterik ez dira jaitsi (2008ko martxoko %8,6tik, 2009ko martxoko %8,1era). Espainiar Estatuan, jaitsiera hau 0,2 puntukoa besterik ez da izan (%10,5etik %10,3ra pasaz). Honek EBZk interes-tipo ofizialei ezarritako 3,1 puntuko jaitsiera (%4,6tik, %1,5era pasa da denbora honetan) ez dela maileguetara pasa adierazten du.


**Finantza-erakundeek kontsumorako maileguei ezarritako
interes-tipoen bilakaera (%).
Europa, 2008ko martxoa - 2009ko martxoa**



Iturria: EBZ - EB

Antzeko bilakaera ikusten da hipotekadun maileguetan aplikatutako tipoetan. Euriborra 2008ko martxotik, 2009ko martxora 2,1 puntu jaitsi den bitartean (%4tik, %1,9ra), espainiar Estatuko finantza-erakundeek aplikatutako tipoa 1,5 puntu jaitsi da soilik (%5,4tik, %3,9ra). Euro-Gunean aplikatutako batez besteko interes-tipoa 0,9 puntu jaitsi da (%5,3tik, %4,4ra).

**Finantza-erakundeak hipotekadun maileguei aplikatutako interes-tipoen bilakaera (%).
Europa, 2008ko martxoa – 2009ko martxoa**



Iturria: EBZ - EB

Azken finean, finantza-entitateak ez dira ematen dituzten maileguetara EBZak ezarritako interes-tipo ofizialen jaitsierak aplikatzen ari, ezta euriborrarenak ere.

4. ONDORIOAK

Gobernuek sortarazi dituzte egungo krisia ekarri duten baldintzak. Gobernuak ematen ari diren erantzuna ez da batere egokia, ez baita egiturazko aldaketarik planteatzen. Egungo egoerara eraman gaituzten politika berberak egiten jarraitu nahi da, eta honek ez ditu dauden sakoneko arazoak konponduko. Txosten honetan finantza erakundeen jarduera aztertu dugu. Ondorengo ondorioak atera ditzakegu:

1. Egungo krisiaren oinarritzko arrazoiatariko bat finantza erakundeek aurrera eramandako espekulazioa da. Ondorioz, finantza sistemaren parte garrantzitsu bat zalantzan dago, eta kredituaren murrizketa ekartzen ari da, ekonomia kalte-tuz.
2. Erakunde publikoak izugarritzko diru kopuruak ari dira finantza erakundeen eskuetan jartzen, dituzten zuloak estal-

tzeko, bere erabilpenerako inolako baldintzarik jarri gabe. Diru asko kostatzen den politikaren aurrean ari gara, eta gizartearentzako hobekuntzarik ekartzen ari ez dena.

3. Finantza erakundeak ez dira jaso duten diru publikoa kredituak emateko erabiltzen ari. Alderantziz, kreditu kopuruak murrizten jarraitzen du. 2009an zehar diru publiko gehiago ematen jarraitzen da, baina Bankak, bai enpresei, zein pertsoneri ematen zaizkien kredituen lorpidea are gehiago zailduz erantzuten du. Era honetara, diru publikoa, finantza erakundeen balantzeak garbitzeko, eta mozkin maila altua mantentzeko erabiltzen ari da.

4. Finantza erakundeak interes tipo oso altuak ezartzen ari dira. Finantza erakundeak, interes tipo ofizialen jaitsieraz mesedetzen ari dira beraiek jasotzen dituzten maileguetan. Baina enpresa eta pertsoneri beraiek emandako maileguetako interes tipo errealetan ez dira jaitsiera hau ezartzen ari. Beraz, interes tipo ofizialen jaitsiera ere, finantza erakundeen irabaziak mesedetzen ari da. Hau benetako ekonomiaren kaltetan doa, eta krisia areagotzen laguntzen du, inbertsioa eta kontsumoa kaltetzen ari baitira.

5. Espainiako Bankuak, ondotxo daki gertatzen ari dena, baina finantza erakundeen jokabidea gaitzetsi beharrean, krisia langileek ordaintzeko aprobetxatu nahi dutenen kanpainaren parte da. Bankari kreditu gehiago emateko eta interes tipoak jaisteko eskatu ordez, lan merkatuan (kaleratzearen merkatzea,...) edo gizarte babesean (pentsioen murrizketa,...) neurri neoliberalak eskatzen ari da.

6. Beharrezkoa da baliabide publikoen indartzea (nacionalizazioa barne) finantza erakundeek egin behar dutenaren eta ez dutenaren berdefinitzea, paradisu fiskaletan jardutea galarratzea, eta baita merkatu eta finantza erakundeak bere tokian jartzeko beste hainbat neurri ere.

BEHIN-BEHINEKO LANA, ENPRESARIEN ESTRATEGIA BAI HAZKUNDE-GARAIAN, BAI KRISIALDIAN

0. SARRERA

Enpresarien elkargoetatik eta haien inguruko komunikabideetatik lan-erreforma berriak eskatzen dituzte aldiro-aldiro, enpresariak enpresaren barruan duten erabaki-ahalmena eta boterea handitzeko asmoz.

Espainiako Estatuan onartu diren ondoz ondoko lan-erreformak eta gero, nabarmen handitu da lan-prekarietatea. Egoera horren adierazlerik larrienetariko bat behin-behineko kontratazioa da, askotan lege-iruzurrean egina.

Hazkunde-garaian behin-behineko kontratazioaz baliatu dira lan-kostuak merkatzeko (okupaturiko langile bakoitzeko kostua gutxiago igo da, Kontsumorako Prezioen Indizea baino) eta enpresarien etekinak ugaltzeko. Eta orain, krisialdian, behin-behineko kontratazioaz baliatzen ari dira, plantillak murrizteko, kosturik gabe eta arrazoitu beharrik izan gabe. Hori horrela, behin-behinekotasuna tresna estrategikoa da patronalaren eskuetan. Baina behin-behinekotasunean oinarritzen den lan-harremanen eredu horrek bere ondorioak dakartza, eta horren inguruan ez dute inoiz eztabaidatu nahi izan.

Txosten honetan behin-behinekotasunaren ondorioak errepasatuko ditugu banan-banan, bai egitura-ikuspegitik (soldatarik gabe geratu, lan-istripuen tasa...), bai egoera-ikuspegitik (zer gertatzen den oraingoan bezalako krisialdietan). Horretarako, hainbat informazio-iturri aztertuko dugu.

1. BEHIN-BEHINEKO KONTRATAZIOAREN ONDORIOAK

1.1. Enplegu-suntsiketa krisialdian

INEK publikaturiko Biztanleria Aktiboaren Inkestan (EPA), bistan dago 2009ko hiru hilabeteetan 36.900 lanpostu galdu direla Hego Euskal Herrian. Epealdi horretan bertan, 30.800 langilek galdu dute aldi baterako kontratua (13.300 emakume eta 17.500 gizon). Hau da, suntsitu den enpleguaren %83,5 behin-behinekoa izan da. Bestela esanda, egunean 342 behin-behineko lanpostu galdu dira, batez bestez, Hego Euskal Herrian.

Behin-behinekotasunaren tasa %22,2 izan da 2009ko lehen hiru hilekoan Hego Euskal Herrian, 3,2 puntu jaitsi baita (3,1 puntu emakumezkoen kasuan, eta 3,3 gizonetzkoen kasuan).

Behin-behinekotasunaren tasa jaitsi bada, ez da izan mugagabe-ko kontratazioa igo delako, aldi baterako kontratuak berri ez direlako baizik. Oso agerian geratu da, bada, behin-behineko kontratazioa enpresarien estrategian sartu dela, lanpostuak suntsitu ahal izateko, ezer arrazoitu beharrik izan gabe eta inolako kosturik gabe.

Eta oraingo krisi-egoeran INEMen erregistratu izan den kontratazio-motari dagokionez, esan behar dugu funtsean behin-behinekoa izaten jarraitzen duela. Izan ere, 2009ko urtarrila eta maiatza bitartean 318.276 lan-kontratu erregistratu dira Hego Euskal Herrian. Horietatik 288.925 behin-behinekoak izan dira, eta 29.351 mugagabeak. Hortaz, aurtengo lehenengo bost hilabeteetan erregistratu diren kontratuen %90,8 behin-behinekoak izan dira. Portzentaje hori apur bat handiagoa da, 2008ko epealdi berekoa baino (%89,8); beraz, sinatu diren kontratuetatik behin-behineko kontratuen portzentajea ere handitu da.

1.2. Soldata-maila txikiagoak

Eusko Jaurlaritzak argitaratu duen 2007ko Lan Merkatuaren Erroldan, argi eta garbi ikusten da behin-behineko kontratua duten soldatapeko langileek diru-sarrerara txikiagoak izan dituztela, batez bestekoak baino.

Zehazkiago, Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) soldatapekoen batez besteko diru-sarrerara 1.276,82 eurokoa izan da 2007. urtean, eta behin-behineko kontratua izan dutenena 1.033,3 eurokoa, hau da, 266,8 euro batez bestekoaren azpitik (%20,5 baxuago).

Are txarragoa da kontraturik ez dutenen egoera, 526,3 €-ko diru-sarrera izan baitute, batez bestekoa baino 773,8 euro gutxiago (%59,5 baxuago).

Bestalde, kontratu mugagabea duten langileek 1.375,1 € irabazi dute, 98,31 € batez bestekoaren gainetik.

16 eta 64 urte bitarteko soldatapeko biztanle okupatuen diru-sarrerak, kontratuen arabera. EAE, 2007.

Kontratu-mota	Diru-sarreraren batez bestekoa (€)
Finkoa	1.375,13
Behin-behinekoa	1.033,34
Kontraturik gabe	526,32
Batez besteko orokorra	1.276,82

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda, 2007.

1.3. Pobrezia-tasa handiagoa

Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen 2008ko Inkestaren datuei erreparatuz gero, pobreziaren itzala zein gizarte-mailataraino heldu den 2008ko ekitaldian ikus dezakegu. Horren arabera, pobreziaren tasa orokorra EAEn %4,1 da; landun biztanleriaren pobrezia-tasa, normala den bezala, baxuagoa da, %2,5ekoa. Hala ere, datu hori deigarria da, zeren langile-jendearen talde nabarmen bat pobrezian bizi dela nabarmentzen du.

Inkestak erakusten digun beste errealitate bat zera da: zenbat eta lan-baldintza prekarioagoak izan, orduan eta pobrezia-tasa handiagoa.


Familiaburuak behin-behineko kontratua duenean, pobrezia-tasa %2,4koa da. Aitzitik, familiaburuak kontratu finkoa duenean, pobrezia-tasa askoz txikiagoa da, %0,7koa. Egoera horrek argiro erakusten du zein garrantzitsua den kalitatezko lan-sistema bat sortzea, beharrian guztiak betetzeko adinakoa. Ez da txiripazkoa izango beti gauza bera gertatzen bada: zenbat eta lan-egoera sendoagoa, orduan eta pobrezia gutxiago.

Are larriagoa da familiaburuak besteren kontura eta kontraturik gabe lan egiten duenean, orduan pobrezia-tasa %13,2ra igotzen baita, batez bestekotik 9,1 puntu gora.

Bestalde, zalantzan geratzen da langabezia-egoeren babes sistema publikoa; izan ere, langabeen ia erdiak (%46,8) pobrezian daude murgildurik. Gainera, behin-behineko kontratua izatetik edo kon-

tratu-gabe egotetik langabeziara pasatzeko aukera nabarmena da. Beraz, %2,4 edo %13,2ko pobrezia tasa izatetik %46,8koa izatera pasatzeko posibilitatea altua da.

Pobrezia-tasa familiaburuaren kolektibo motaren arabera (pobrezia %). EAE, 2008.



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen 2008ko Inkesta

1.4. Ezbehar –kopuru altuagoa

Behin-behineko kontratua duten langileek ezbeharrak pairatzeko arrisku handiagoa dute. 2008. urtean, Nafarroan, 1,5 bider istripu gehiago izan dute behin-behineko kontratadunek, langile finkoek baino.


EAEn istripu larri eta heriozko istripu traumatikoak 3 bider gehiago gertatu dira behin-behineko kontratadunengan, langile finkoengan baino. Istripu larri eta heriozko istripu ez-traumatikoen kasuan, 1,3 bider gehiago gertatu dira behin-behineko kontratadunengan, langile finkoengan baino.

2. BEHIN-BEHINEKOTASUNA, EUROPAKOA BAINO HANDIAGO

Hego Euskal Herrian suntsitzen ari den enplegu gehiena behin-behinekoa da; hori dela-eta, behin-behinekotasunaren tasa beherakada da; baina, hala eta guztiz ere, EB-27ko batez bestekotik askoz gorago dago. Zehazkiago, Hego Euskal Herriko behin-behinekotasun tasa 2009ko lehen hiruhilekoan %22,2koa izan da; 8,4 puntu gorago, EB-27ko batez bestekoa baino (Europa-mailan dugun azken datua 2008ko laugarren hiruhilekoarena da: %13,8).

Europako datuekin dugun aldea nabaria bada gizonen kasuan, are nabariagoa da emakumeenean. Hego Euskal Herriko (HEH) gizonezkoen behin-behinekotasunaren tasa %17,7koa izan da, EB-27ko %12,9aren aldean. Diferentzia, beraz, 4,8 puntukoa da. Emakumezkoen kasuan %27,4 izan da HEHan, 12,7 puntu gora EB-27ko batez bestekotik (%14,7).

Behin-behinekotasun tasa orokorra, gizonena, eta emakumeena (%) EB-27 (2008ko IV hiruhilekoa) eta Hego Euskal Herria (2009ko I hiruhilekoa)



Iturriak: INE, Eurostat

3. UKITUEN IZAN DIREN GIZARTE-TALDEAK

3.1. Emakumeak.


HEHko behin-behinekotasunaren tasa altuagoa da emakumeen artean (%27,4), gizonen artean baino (%17,7). Diferentzia 9,7 puntukoa da.

EB-27an ere badaude genero-desberdintasunak, behin-behinekotasunari dagokionez, baina ez HEHkoak bestekoak. Zehazkiago esanda, EB-27ko emakumeen behin-behinekotasunaren tasa %14,7 da, gizonena baino 1,8 puntu eskas gehiagokoa (%12,9). Hau da, hemen 7,9 puntu gorago gaude, EB-27an baino, generoen arteko tasen diferentzian.

3.2. Gazte jendea.

Behin-behinekotasunak eragin handiagoa du, baita ere, gazte jendearengan. Zehazkiago esanda, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen behin-behinekotasunaren tasa %59,5koa izan da laugarren hiruhilekoan HEHan, 37,3 puntu tasa orokorretik gora. 25 eta 34 urte bitartekoen kasuan, behin-behinekotasunaren tasa %30,6koa izan da, 8,4 puntu tasa orokorretik gora.

Behin-behinekotasunaren tasa adin-tarteka (%).
Hego Euskal Herria, 2009ko I hiruhilekoa.



Iturriak: INE

4. ONDORIOAK

1. Enpresariak behin-behinekotasunaz baliatzen dira etekinak ugaltzeko, eta enpresetan duten erabaki-ahalmena zabaltzeko.
2. Behin-behinekotasunaren ondorioak oso txarrak dira langileentzat:
 - Norberaren bizitza-proiektua modu duinean egin ahal izatea erabat baldintzatzen du.
 - Krisi ekonomikoaz baliaturik, behin-behineko kontratudunak dira lehenengo kaleratzen dituztenak, ez baitago arrazoitu beharrik, eta kalte-ordaina, izatekotan, hutsaren hurrengoa izaten da.
 - Behin-behineko kontratudunek soldata txikiagoak jasotzen dituzte, langile finkoek baino.
 - Pobrezian sartzeko arriskua handiagoa da behin-behineko kontratua dutenentzat eta kontraturik ez dutenentzat.
 - Lan-ezbeharrak izateko arriskua ere handiagoa da behin-behineko kontratua dutenentzat.
 - Behin-behinekotasunak bereziki eraginpean hartzen dituen gizarte-taldeak emakumeak, gazte jendea eta etorkinak dira.
3. Onartezina da krisi ekonomikoaz baliatzea lan-prekarietatea areagotzeko, bai enpresetan, bai lan-erreformen bidez.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN 2008KO AURREKONTU-EMAITZA

1. 2008AN, ZERGA-BILKETA TXIKIAGOAREN ONDORIOZKO DEFIZITA

Euskal administrazioek (Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek) 518 milioi euroko defizitaz itxi dute 2008ko urtealdia. Horrek esan nahi du ekitaldi horretan administrazioen diru-sarrerak gastuak baino txikiagoak izan direla.

Horren arrazoia diru-sarrerek 2008an izan duten gutxipen nabaria izan da, gastuekin jazo ez dena. Foru Aldundiek, zehazki, 718,1 milioi euro $-4,9\%$ gutxiago bildu dute zerga itunduen bidez. Zerga-bilketa urriagoaren arrazoiak honako bi hauek dira:

- 1.- BEZaren bidez 572 milioi euro gutxiago ($11,8\%$) bildu dira, zerga-iruzurraren hazkundeagatik, zalantzarik gabe. Bestela ezin da azaldu nola urritu ahal den BEZaren bidez bildutakoa, kontsumoa hazten delarik, 2008an gertatu den bezala.
- 2.- Sozietateen gaineko Zergak eragindako bilketa 342 milioi euro txikiagoa ($16,8\%$) izan da. Urripen horren arrazoia administrazioak onartutako zerga-erreformak izan dira, ekonomiaren atzeraldia barik. Izan ere, 2008an zerga horren bidez bildutakoa batez ere 2007ko urtealdiko likidazioari dagokio, hau da, ekonomia oraindik atzeraldian sartu gabe eta enpresen mozkinak handitzen segitu zuteneko garai bati.

2. DIRU-BILKETAREN GUTXIPENA EZ DA BATERE KOMENIGARRIA KRISI-GARAIAN

Zerga-bilketa urritzea ez da batere gertaera onuragarria, gizarte-babeseko gastua erabat baldintzatzen duelako. Baina oraingoaren moduko krisi-garaietan are kaltegarriago suertatzen da. Administrazioaren zereginak alderantzizkoa izan beharko luke;

hau da, ekonomia sustatzeko, gastu handiagoa egin beharko luke gizarte-prestazioetan eta zerbitzuetan, hala nola menpetasuna duten pertsonen eta umeen zainketan, osasunean, hezkuntzan, eta abar. Horrelako prestazio eta zerbitzuak zinez beharrezkoak dira gizarte-babesaren arloan ditugun gabeziak estaltzeko eta Europar Batasuneko mailara heltzeko. Gainera, zerbitzuok garatzeko sortu behar diren lanpostu ugariak iraunkorrak dira, azpiegituren erakuntzarako sortutako lanpostuak ez bezala.

Administrazioen eginkizun keynesiarrari buruz maiz hitz egiten den arren, horretarako marjina eskasa dago, errenta handiei eta kapital-errentei zergak murrizten bazaizkie, eta zor publikorik jaulkitzen ez bada, euskal administrazioek ohi duten legez. Oraingo eskemak ez du gastua handitzeko aukerarik ematen, eta sail batzuen gastutik kendu eta beste sail batzuenara bideratu beste irtenbiderik ez du uzten. Gaur egungo joera, funtsean, azpiegituretako gastua handitzea, finantza-sektoreari laguntzea eta enpresei dirulaguntzak ematea dela ikusirik, argi dago eredu neoliberalala aldatzeko inolako borondate politikorik ez dagoela.


3. 1998AZ GERO PILATUTAKO SUPERABITA 5.724 MILIOI EUROKOA DA

2008ko ekitaldia defizitez itxi den arren, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, salbuespena izan da Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) instituzioen ibilbidean, 1998az gero, bildutakoa baino diru gehiago gastatu den lehenengo urtealdia baita.

Bereziki azpimarragarriak dira 2008koaren aurreko 3 ekitaldiak, zeinetan superabita handia eta hazkorra izan den (866 milioi eurokoa 2005ean, 1.156 milioikoa 2006an eta 1.396 milioikoa 2007an).

2008ko urtealdiko defizita barne hartuta, azken 11 ekitaldietako balantzeak 5.724 milioi euroko superabita metatu dela erakusten digu.

Eusko jaurlaritzaren eta aldundien aurrekontu-emaitza (milioi eurotan). 1998-20008



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, 2008ko 4. hiruhilekoko Aurrekontu Egikaritzeari buruzko Estatistikan oinarrituta


4. SUPERABIT OROKORRA 1998AZ GERO EAEN

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzarena ala Foru Aldundiena den araberaren xehekatuko dugu aurrekontu-emaitza.

2008ko ekitaldian, Aldundiek 85,5 milioi euroko superabita lortzen jarraitu dute, eta Eusko Jaurlaritzak 603,5 milioi euroko defizitaz itxi du urtealdia. Hortaz, defizita Eusko Jaurlaritzari dagokio.

Hurrengo grafikoak Barne Produktu Gordinaren (BPGd) arabera neurturik agertzen ditu EJK eta Foru Aldundiek 1998tik 2008ra izan dituzten aurrekontu-emaitzak. Aztertutako aldi osoan zehar, superabita ageri da emaitzetan (Foru Aldundiek 2001ean eta 2002an izan zituzten defizit hutsalak eta Eusko Jaurlaritzak, hemen aipatu dugunez, 2008an izan duena salbu).

Eusko jaurlaritzaren eta aldundien aurrekontu-emaitza (BPGd %). 1998-2008




Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, 2008ko 4. hiruhilekoko Aurrekontu Egikaritzeari buruzko Estatistikan oinarrituta

5. EUOPAR BATASUNEAN BAINO DEFIZIT TXIKIAGOA 2008AN

EAEko 2008ko aurrekontu-emaitzan ageri den defizita ez da salbuespena Europa mailan, ondorengo grafikoak erakusten duenez, joera orokorra defizita da eta.

Are gehiago, EAEko defizitaren pisua 27-EB osokoa baino txikiagoa da. Zehatz esateko, EAEko aurrekontu-emaitza BPGd-aren %0,7koa izan delarik ere, 27-EBko batez besteko aurrekontu-saldoa %2,3koa izan da. Horrek esan nahi du EAEk 2008an BPGd-aren 1,6 puntu gehiagoko defizita (1.107 milioi euro gehiagokoa) izan zeza-keela, 27-EBko batez besteko defizit-maila berean egoteko.

**Aurrekontu emaitza (BPGd %),
(-) defizita edo (+) superabita. 27-EB, 2008**



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Eurostaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

LAN OSASUN ETA SEGURTASUN ARLOAN DIAGNOSI ETA BALORAZIOA

1. EGOERAREN GAINKO DIAGNOSIA

1.1. Lan istripuak Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE)

Osalanek argitaratu dituen datu ofizialen arabera, 2008an 49.046 lan-istripu jazo ziren. 2007ko datuekin alderaturik, lan-istripuak, guztira, %0,55 ugaritu dira urtebetean, eta istripu hilgarriak, berriz, %10,71.

Hala ere, Osalanek lan-istripuei zein gaixotasun profesionalei buruz eskainitako datuek ez dute egoeraren gaineko egiazko irakurketa fidagarria egiteko aukerarik ematen. Eusko Jaurlaritzak argudiatzen duenez, Osalan Institutuaren informazio-iturriek eta aplikazio informatikoez "nolabaiteko distortsioa eta bateraezintasuna sortu dituzte 2007ko eta 2008ko urtealdien artean". Zabaldu dituzte datu ofizialen eta benetan gertatu diren istripu eta gaixotasunen kopuruen arteko jauzia agerikoa da.

Beraz, jazotako istripu eta gaixotasunetako hainbat ez dira isla-tu estatistika ofizialetan.

Eusko Jaurlaritzak eta Osalanek manipulatu dituzten datuak zabaldu dituzte, euren interesak babestearren: emandako informazioaren kalitate eskasa eta datuoi buruz egin duten irakurketa esandakoaren froga argia dira. Hona hemen: oraingoan, 2007ko datuak ez zedela ondo diote; urte batetik bestera, informazioa agertzeko irizpide ezberdinak erabiltzen dituzte; aldi baterako kontratua duten langileek nozitutako ezbeharren indizeak ezkutatu egiten dituzte; lanerako bidean nahiz itzuleran jazotako istripuak ("in itinere" deritzenak) lan-ezbeharren kopuruetatik kanpo uzten dituzte (legez lan-istripuztat hartu behar diren arren)... Datuetan egindako aldaketa horien xedea lan-istripuen kopurua urtez urte urrituz doalako irudia ematea da, gezurra bada ere. Alegia, informazioa faltsutzeko asmoz egiten dira aldaketa horiek.

Lan-istripuen kontrako borroka arrakastatsua dela sinestarazi nahi digute. Baina, ELAk zenbatu zuenez, 2008an 103 langile hil ziren lan-istripuz HEHn (88 EAEn eta 15 Nafarroan). Joera aurreko urteetako bera da; ez da inongo jaitsierarik izan. Berez, Osalanen memorian bildutako datuek ere erakusten digute iaz laneko ezbehar-tasa ez zela batere jaitsi, eta, aitzitik, igoera txikia izan zuela. Zehazki, 2008an, 1.000 langiletik 56,78 egon ziren bajaran lan-istripuen ondorioz, 2007an egoera hori nozitu zuten langileak 56,46 izanik.

Datuek islatzen duten uneko egoera zehatza gorabehera, lan-istripuek egiturazko osagaiak dituzte. Horixe berresten du Osalanen 2008ko Memoriak, lan istripu larria edo hilgarria nozitzen duten pertsonen ezaugarriei buruzko azterketa zehatzagoa egitea ahalbidetzen duelarik. Lan-istripuak eragiten dituzten zioak bista-koak dira:

* Behin-behinekotasunak istripuak gertarazten ditu: istripu larriak eta hilgarriak hiru bider maizago jazotzen dira aldi baterako kontratua duten langileen artean, kontratu mugagabea dutenen artean baino. Lan-istripu traumatikoak ere ugariagoak izan dira aldi baterako kontratuak dituzten langileen artean.

* Eraikuntzan eta lehen sektorean istripu gehiago izaten dira: lanean istripu larria edo hilgarria nozitzeko arriskua 6 aldiz handiagoa da lehen sektorean, zerbitzuen sektorean baino; eta eraikuntzan eta industrian ere, hurrenez hurren, 3 eta 1,6 bider handiagoa, zerbitzuetan baino. Istripu larri edo hilgarri traumatikoei dagokienez, arriskurik handiena eraikuntza-sektorean ageri da.

* Zenbat eta esperientzia txikiagoa, orduan eta arrisku handiagoa: istripuen %40tik gora lanean urtebete baino gutxiago zeramaten langileei gertatu zitzaizkien.

* Etorkinek lan-istripu gehiago izaten dituzte: istripu larri eta hilgarrien %10ek langile etorkinak izan zituzten tamalezko protagonista, langile-alor horrek enpleguan duen pisua, aldiz, askoz urriagoa den arren.

* Eraikuntza-sektorean, istripuei aurrea hartzeko xedatutako neurriak ez betetzea da arau orokorra: ikuskatutako 2.221 obretan, altueratik amiltzeko eta zanga, putzu, ezponda eta antzekoetan erortzeko arriskuarekin loturiko 3.418 "akats" hauteman dira. Egoera oso larria da, eta urtez urte errepikatzen da.

1.2. Gaixotasun profesionalak

Puntu honetan, utzikeria erabatekoa da. Datu ofizialek ez dute benetako egoera islatzen. Izan ere, datuon arabera, 2008an, 2.666 Gaixotasun Profesional (GP) jakinarazi ziren; 2007an, 1890, eta 2006an, 3.321. Nola liteke? Argi dago: GPek, oraindik ere, ezkutuan jarraitzen dute, eta eskaintzen diren datuetan, zalantza barik, jazotzen direnak baino gutxiago islatzen dira.

Azken bi urteetako datuak (2007koak eta 2008koak) aztertzean, arreta ematen du GP hilgarri bat ere ez agertzea: hau da, 0 GP hilgarri zenbatu dute, nahiz eta 2008an GPek hildako bat baino gehiago utzi duten, prentsan ere argitaratu zenez.

Dauden datu urriek adierazten dutenez, industria (metalurgia, zehazki) da gaixotasun profesionalen eragin handiena agertzen duen sektorea; batez ere 45 urtetik gorako langileek izaten dituzte horrelako gaixotasunak, eta hezur eta muskuluetakako gaixotasunak dira sarrien jazotzen direnak.

Europan eta munduan, gaixotasun profesionalen gehikuntza eta larritasun asaldagarriek ez dute ezberrik sortzen, horien ondorioak lan-istripuenak baino larriagoak direla onartzeraino ere. Hemen, ordea, antza denez, administrazioak ez daude batere kezkatuik gai horrekin.

Egoera erabat kolokakoa da. Tamalez, gaixotutako langileak berak edo, kasurik txarrenetan, senitartekoei borrokatzen dutenean bakarrik lortu izan da, bide latza egin ondoren, epaitegian kontingentzia profesionala aintzatestea.

2. OSALANEN JARDUNARI BURUZKO BALORAZIOA

Aurtengo martxoaren 25ean, Osalanen Kontseilu Nagusiak 2008ko Memoria eta 2009rako Kudeaketa Plana aurkezteko eta onartzeko bilkura egin zuen. ELAk ezezko botoa eman zien biei.

Aipatutako bi dokumentuok aztertuta, honako ondorioztapen hauek egiten ditu ELAk:

2.1. Ematen den lanbide-prestakuntza ez da nahikoa

Azpitarratu beharreko zenbait alderdi:

- Prebentzio-arloko ordezkariak legeriaren gaineko prestakuntza hartzen dute, baina prestakuntza teknikoa, askotan,

hainbat urte geroago ematen zaie. Osalanen atzerapenak ohi-koak eta etsigarriak bihurtu dira.

- Eraikuntzako langileek Ikasgela Iraunkorreen hartzen duten berariazko prestakuntza porrot hutsa da. Trebatutako langileen kopuruan ez da gehikuntza esanguratsurik egon, 2008ko mailak 2006koen antzekoak dira eta.
- Enpresaburuen eta erdi-mailako kargudunen prestakuntza lehenesten da eta, lortutako emaitzei buruz, ez da inongo datu objektiborik azaltzen.

2.1. Ikuskaritza eskasa

Ikuskaritza eta kontrola urriak eta kalitate eskasekoak dira. Hainbat teknikari gaitu badira ere, ikuskapenak ez dira nabarmenki areagotu. Are gehiago, atal batzuetan, hala nola lehen sektoreko eta zerbitzuetako azpikontratetan eta ETEetan egindako ikuskapenean, jaitsiera egon da (2008an, 3.826 azpikontrata ikuskatu ziren, eta 2007an, aldiz, 4.380); beste zenbait ataletan, berriz, hasieran zehaztutako helburua ez da bete.

Iaz bezala --datu horien gainean egin genuen irakurketa kritikoren ondorioz, guk uste-- ikuskapen horien emaitza ez da ezagutarazi. Hots, ez da urratze-aktei eta ezarritako isunen zenbatekoari buruzko daturik ageri. Gogoan izan behar dugu aurreko urteetan hautemandako urratzeek eta jarritako isunek ikuskaritza-maila baxu-baxua uzten zutela agerian.

2.3. Nabarmendu beharreko beste alderdi batzuk:

Kudeaketa Planeko beste jarduera-esparru batzuetan 2008an zehar lortu diren emaitzak hutsalak edo ñimiñoak izan dira. Hona hemen zenbait adibide

- * Gizartea arazoaz jabearazteko eta sentikortzeko lana
 - ETEei informazioa helarazteko gutunak.
 - Triptiko baten zirriborroa, urte osoan.
- * Konpromiso instituzionala
 - Administrazioarako bertarako ikuskaritza jarri da abian; une honetan, ez du inolako eraginkortasunik.
 - 2008an zehar lan-istripu ugariren agertoki izan diren eta hildakoak ere utzi dituzten bi herrilan handitan, alegia Euskal Y-an eta Super Sur, deritzonean garatutako aholkularitza- eta ikuskaritza-lanak

* Informazioa eta Sistemak

- Oraindik sortzeke dagoen behatokia.
- Inolako proposamenik, ondoriorik edo neurririk ekarri ez duten ikerketak.
- 2007an bukatuta egon behar zuten arren, inprenta-ara-zoengatik eta baliabide-faltagatik oraindik argitaratu ez diren azterlanak.

* Lan Osasuna

- Datuen informazio-sistema: "abioa atzeratu egin da".
- Amiantoa: ikerketa gutxiago egin dira.
- GPak: GP gutxiago sailkatu dira, eta are gutxiago ikertu dira.
- Osasun eta lan arloen arteko koordinazioa oso txarra izan da, gaixotasun profesionalen inguruko susmoen berri emateari begira.

* Kontseilu Nagusiaren ebazpenen ondorioz organoek eta batzordeek egindako bilerak.

- Plan Estrategikoaren jarraipena egiteko sortutako lantaldeek hutsaldu eta hondatu egin dituzte Batzordeak. 2008an, Batzordeok, gehienez ere, behin baino ez dute egin bilera.

Beraz, 2008an, ezer gutxi egin ez ezik, egindakoa aurreko urteetakoaren jarraipen hutsa izan da, nahiz eta istripuei buruzko datuak zinez txarrak izan. Horrela, agerian geratzen dira bai benetako asmoak, bai gauzak hobetzeko borondate hutsala.

2.4. 2007-2010erako Plan Estrategikoa eta 2009ko Kudeaketa Plana

2007-2010erako Plan Estrategikoaren atala den 2009ko Kudeaketa Planak ez du inolako aurrerapausorik planteatzen.

2009rako Planak iazko planeko neurriak kopiatu besterik ez du egiten. Bertan, iazko urtealdirako baino ekintza gutxiago aurreikus-ten dira (68, zehazki, iazko 72en aldean), eta horietatik 7 bakarrik dira berriak. Gainerakoak, 2008koen berdin-berdinak dira, beraien arrakasta edo porrota aintzat hartu gabe.

Kasu honetan ere, Planaren inguruan, eta batez ere proposatuta-ko neurri berrietako batzuei buruz, eskaintzen den informazio urriak ez digu aukerarik ematen neurrien helmenaren berri izateko. Horra hor, esaterako, Osalanek eta Eraikuntzako Lan Fundazioak, eraikuntzako txartel profesionalaren lorpenari buruz, 2009an, lege-

gintzaldiaren amaieran, sinatu duten hitzarmena. Horren gainean, ezertxo ere ez dakigu, ez baitute ez kontsultarik egin, ez informazioerik eman. Huts-egite larria hori ere, gure iritziz.

Planean proposatutako neurrien xedea ez da lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak gertarazten dituzten zioei aurre egitea. Aurtengoa ere plan txiroa, benazko helbururik gabekoa, eskasa eta kontinuitate da; aurrekoak bezala, ezer ez lortzeko taxutua, alegia.

Politika-aldaketa behar dugu, premia, gainera. Baina gaur egungo planak eta baliabideak (diru- zein langile-zuzkidurak) ikusita, argi dago administrazioek hautatu duten norabidea ez dela hori.

3. ONDORIOAK

- 1 Lan-istripuen arazoa asaldagarria da. Hala eta guztiz ere, EAEko administrazioek ez dute egoera hobetzeko eta ezbeharrak zein gaixotasun profesionalak eragiten dituzten benetako zioei aurre egiteko ez neurririk hartzen, ez ekintzarik burutzen. Ez dute ezertxo ere egiten, ez lanaren ezegonkortasunari, ez kontratazio-iruzurrari, ez azpikontratazioari dagokienez.

- 2 Eusko Jaurlaritzari kezka handiagoa sortzen dio ugazaben interesak eta mozkinak babesteak, euskal langileen segurtasun- eta osasun-arazoak zuzentzeak baino.

Jaurlaritzaren apustu politikoa argia da: ugazaberiaren aurka ez jartzea, gauza guztietan berarekin ados egotea, eta lanmerkatuaren kolokako egoerari entzungor egitea.

Finean, Eusko Jaurlaritzak ez du inongo lidergorik eremu honetan, ugazaberia zigorgabe eta patxadan uztea erabaki baitu, legea betetzera derrigortzeko inongo asmorik gabe.

- 3 Eusko Jaurlaritzak lan-istripuei buruz mintzatzeko eraturako mahaiaren parte ez hartzea erabaki du ELAk. Jaurlaritzak, bere erantzukizun politikotik itzuri nahiz –erantzukizun handia badu ere—, “akordio globala” exijitu eta guztien inplikazioa (sindikatuena, enpresariena eta Administrazioarena) eskatu du, jendarteratzeko argazki aproposa lortzearren. ELAren iritziz, legeria betetzea enpresen ardura da, zalan-tzarik gabe, eta legeak betearaztea, administrazioarena.

Egoera zuzentzeko borondaterik ez badago, sobera daude hitzarmenak eta gizarte-elkarrizketak.

- 4 ELAk langileen segurtasunarekin eta osasunarekin jolasean ez ibiltzeko exijitzen du. Halaber, segurtasunari eta osasunari buruzko politikak errotik aldatu beharra aldarrikatzen du.

